

4754

EBAZPENA, 2008ko uztailearen 17koa, Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariarena. Honen bidez ebatzen da Haurreskolak Partzuergoaren hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailatu eta argitaratzea (8602535 hitzarmen-kodea).

AURREKARIAK

Partzuergoaren Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak, aipatutako hitzarmen kolektiboari buruzko derri gorrezko dokumentazioa aurkeztu zuten Zuzendaritza honetan, 2008ko uztailearen 9an.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Langileen Estatutuari buruzko Legeko 90.2 artikulua (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, 1995eko martxoaren 29ko BOEn argitaratua) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 17.f) artikulua —Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren egitekoen eta organoen egitura ezartzen duena (2005-10-27ko EHAA)- xedatutakoaren arabera, eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak (1981-04-02ko EHAA) eta maiatzaren 22ko 1040/1981 Errege Dekretuak (1981-06-06ko BOE) -hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- xedatutakoaren ildotik.

Bigarrena.— Sinatutako hitzarmen kolektiboak Langileen Estatutuari buruzko Legearen 85., 88., 89. eta 90. artikuluek xedatutako eskakizunak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Hitzarmena Euskadiko Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatu eta gordailatzeko agintzea, eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailearen 17a.

Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

4754

RESOLUCIÓN de 17 de julio de 2008, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo del Consorcio Haurreskolak (código de convenio n.º 8602535).

ANTECEDENTES

El día 9 de julio de 2008 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida al convenio antes citado, por la Dirección del Consorcio y los representantes de las y los trabajadores.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.— La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-03-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 17.f) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (BOPV de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV de 02-04-1981) y con el Real Decreto 1040/1981, de 22 de mayo (BOE de 06-06-1981) sobre registro de convenios colectivos.

Segundo.— El convenio ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.— Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios Colectivos de Euskadi, con notificación a las partes.

Segundo.— Disponer su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de julio de 2008.

El Director de Trabajo y Seguridad Social,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN
LAN-HITZARMENA

LEHENENGO TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA
HITZARMENAREN EREMUA, SALAKETA ETA
LUZAPENA**1. artikulua.**– Aplikazio eremua: langileak.

1.– Hitzarmen hau Haurreskolak Partzuergoak kontraturiko langile guztiei aplikatuko zaie.

2.– Hitzarmen honen aplikazioari dagokionez, salbuespen dira:

a) Zuzendaritza.

b) Nahiz eta Haurreskolak Partzuergoan jardun, beste administrazio batzuen menpekoak diren edo beste erakunde batzuek kontratatu dituzten langileak.

2. artikulua.– Aplikazio eremua: lurraldea.

Hitzarmen honetan ezarritakoa Euskal Autonomia Erkidegoan Haurreskolak Partzuergoko edozein lan zentrotan jardun eta aplikazio eremuak hartzen dituen langile guztiei aplikatuko zaie.

3. artikulua.– Aplikazio eremua: denbora.

1.– Hitzarmena alderdiek sinatzen duten egunean bertan jarriko da indarrean, eta, ordainsariei dagokionez, atzeraeraginezko ondorioak izango ditu, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2.– Bere iraupena 2009ko abenduaren 31 arte izango da, salbu antolakuntza eta programaketa alderdiak, Hitzarmen honetako I. Tituluko II. Kapitulan eta II. Tituluan jasotzen direnak, horiek 2010eko uztailaren 31 arte egongo baitira indarrean. Hala ere, epemugatik aurrera urtebeteko denboraldietarako luzatu ahal izango da adierazi gabe, non eta alderdietako batek, epemuga baino bi hilabete lehenago gutxienez, salaketa idatziz aurkezten ez duen.

4. artikulua.– Ordezko zuzenbidea.

Hitzarmen honetan aurreikusten eta xedatzen ez den gutzirako, Langileen Estatutuari eta aplikatu ahal diren gainerako lege edo erregelamendu xedapenetan ezarritakoari egingo zaie kasu.

5. artikulua.– Interpretazioa.

Hitzarmenean ezarritako baldintzen izaera eta eragina beren osotasunean ulertu eta aplikatu behar dira, hitzarmenak izan ditzakeen ez-aipatzeek, hutsuneek eta ambigüotasunek adostutakoaren zentzu zuzena oztopa ez dezaten.

CONVENIO COLECTIVO DEL CONSORCIO
HAURRESKOLAK

TÍTULO PRIMERO

DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I
ÁMBITO, DENUNCIA Y PRÓRROGA DEL
CONVENIO**Artículo 1.**– Ámbito Personal.

1.– El presente Convenio es de aplicación a todo el personal contratado por el Consorcio Haurreskolak.

2.– Queda excluido del ámbito de aplicación de este Convenio:

a) La dirección.

b) Personal dependiente de otras administraciones o contratado por otras entidades que preste servicios en Haurreskolak.

Artículo 2.– Ámbito Territorial.

Lo dispuesto en este Convenio se aplicará a las personas incluidas en su ámbito personal que presten servicios en cualquier centro de trabajo que tenga el Consorcio Haurreskolak en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 3.– Ámbito Temporal.

1.– El presente Convenio entrará en vigor el mismo día de su firma por las partes que lo concertan y tendrá, en sus aspectos salariales, efectos retroactivos al 1 de enero del año 2007.

2.– Su duración será hasta el 31 de diciembre de 2009, salvo en los aspectos organizativos y de programación recogidos en el Capítulo II del Título I y en el Título III del presente convenio, que tendrán vigencia hasta el 31 de julio de 2010, pudiéndose prorrogar tácitamente a partir de su vencimiento, por periodos anuales, a menos que, por cualquiera de las partes, se denuncie por escrito con un mínimo de dos meses de antelación a la fecha de vencimiento.

Artículo 4.– Derecho Supletorio.

En lo no previsto y regulado en el presente Convenio se estará a lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y demás disposiciones legales o reglamentarias que resultaren aplicables.

Artículo 5.– Interpretación.

El sentido y alcance de las condiciones establecidas en el Convenio deberán entenderse y aplicarse en consonancia con la totalidad del mismo, con el fin de que las omisiones, lagunas o ambigüedades que pueda contener el Convenio, no lleguen a perturbar el recto sentido de lo pactado.

6. artikulua.– Osotasunari atxikitzea.

Hitzarmena gutxienezkoa eta banaezina da, xede guttiararako; hau da, hitzarmenean adostutako baldintzek batasun organikoa osatzen dute, eta horien aplikazioaren eraginak osorik hartu behar dira kontuan, osotasunari atxikiak; beraz, ezingo dira hitzarmenaren testuingurutik at banaka negoziatu, ezta hitzarmenaren artikulua batzuk beste guztiak kontuan hartu gabe aplikatu ere. Hitzarmena oso-osorik aplikatu eta bete beharko da.

II. KAPITULUA
BATZORDE PAREKIDEA

7. artikulua.– Batzorde Parekidea.

1.– Hitzarmena sinatzean, Batzorde Parekidea eratuko da. Batzordeak honako zeregin hauek izango ditu: itundutakoa interpretatzea, aztertzea eta betetzen dela zaintzea, bai eta hitzarmenaren aplikazioaren jarraipena egitea ere, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Batzordea hitzarmen hau sinatzeko unean osatuko da, eta hitzarmenari erantsitako aktan agertuko dira batzordekide bakoitzaren izen-abizenak, kargua (Presidente, Idazkaria edota kide titularra) eta ordezkopertsonen zerrenda.

Batzordearen ebazpenak lotesleak izango dira, Administrazioako erakundeei eta erakunde judizialei legeek eman dizkieten eskumenei kalterik egin gabe.

Batzordeari behar beste informazio emango zaio, bere eginkizunak bete ahal izan ditzan.

2.– Hitzarmena sinatzen duen sindikatuen ordezkari titular bat izango du Batzorde Parekidean, eta Partzuergoak, betiere, sindikatuak adina batzordekide izango ditu. Sindikatuetakoa batzordekideen boto kualifikatua sindikatu bakoitzak Hitzarmenari dagokion eremuan duen ordezkagarritasunaren arabera izango da.

3.– Batzorde Paritarioak ohiko batzarrak lau hiletik behin egingo ditu, eta/edo batzordeko edozein alderdik, batzarra egin baino zazpi egun lehenago gutxienez, idatziz eskatzen duen gutzietan ere; horretarako, batzar bereziaren gai-zerrenda, data eta lekua zehaztu beharko dira. Alde sindikalaren aldetik datorren eskaeraren kasuan, alde horren gehiengoak egingako eskaera nahikoa. Aldeak ados jarriz gero, deialdiaren eta batzarraren egunaren arteko denboraldia elkarren arteko adostasunez laburtu ahal izango da.

Batzorde Parekidearen deialdirako idazkiak argi eta garbi zehaztu beharko ditu eguneko gai zerrendan aztertu beharreko puntuak, bilera eguna, tokia eta ordua. Bi alderdiek agertu behar dute batzordean. Eguneko gai zerrenda aldeek gutxienez zazpi egun lehenago proposa-

Artículo 6.– Vinculación a la totalidad.

El convenio tiene un carácter mínimo e indivisible necesario a todos los efectos, en el sentido de que las condiciones pactadas en el mismo constituyen un todo orgánico unitario, y a efectos de su aplicación práctica serán consideradas global y conjuntamente vinculadas a la totalidad, por lo que no podrán ser renegociadas separadamente de su contexto, ni pretenderse la aplicación de parte de su articulado desechando el resto, sino que siempre habrá de ser aplicado y observado en su integridad.

CAPÍTULO II
COMISIÓN PARITARIA

Artículo 7.– Comisión Paritaria.

1.– A la firma de este Convenio se constituirá una Comisión Paritaria, que asumirá funciones de interpretación, estudio y vigilancia de lo pactado, así como de seguimiento de su aplicación, durante la totalidad de su vigencia.

La constitución de esta comisión se hará en el mismo acto de la firma del presente convenio, recogiendo en un acta que se anexará al mismo y donde se harán constar los nombres de sus integrantes así como el nombramiento de Presidente/a, Secretario/a o miembro titular, y la designación de las personas sustitutas de cada uno de ellos.

Sus resoluciones serán vinculantes, sin perjuicio de las competencias legalmente atribuidas a las entidades administrativas y judiciales correspondientes.

Se remitirá a esta Comisión la información suficiente para el ejercicio de sus funciones.

2.– La Comisión Paritaria estará integrada por un miembro titular en representación de cada central sindical firmante del Convenio y en igual proporción el Consorcio. El voto cualificado de los miembros titulares de la representación de cada central sindical, será el que corresponda a su representatividad en el ámbito del presente Convenio.

3.– Se realizarán reuniones de la Comisión Paritaria cuatrimestralmente con carácter ordinario y/o siempre que sean solicitadas por escrito por cualquiera de las partes que la componen, con un mínimo de 7 días de antelación a la celebración de la misma, con concreción precisa y detallada de los puntos a tratar reflejados en el orden del día, fecha y lugar de la reunión con carácter extraordinario. En el caso de solicitud por la parte sindical, será suficiente la solicitud de la mayoría de dicha parte. El periodo de tiempo entre la convocatoria y el día de la reunión podrá reducirse de mutuo acuerdo.

La convocatoria de la Comisión deberá reflejar de manera detallada y precisa los puntos a tratar en el orden del día, lugar, fecha y hora de la reunión, siendo obligatoria la comparecencia de ambas partes. El orden del día estará compuesto por los puntos que se propon-

tutako puntuez osatuko da, aurreko epigrafean aurreikusitako ohiz kanpoko kasuak salbu.

4.– Bi aldeek aurretik jakinarazi beharko dizkiote Batzorde Parekideari –Batzordeak erabaki dezan– Hitzarmenaren interpretazioarekin, indarraldiarekin eta aplikazio eremuarekin lotutako desadostasun guztiak, bai eta Hitzarmenak hartutako langileei eragiten dizkieten eta lan arlokoak diren bestelako gaiak ere.

Batzorde Parekidea ados jartzen ez bada, edozein presio edo gatazka neurri hartu aurretik, bi aldeek PRECO IIan azaltzen den edo bere garaian indarrean legokeen prozedimendura jo beharko dute. Batzorde Parekidea ados jartzen ez bada, bi aldeek bitartekaritza-ra jo ahal izango dute. Hala eginez gero, edozein presio edo gatazka neurri hartu aurretik, eta ados jartze aldera, zortzi laneguneko epean bitartekaria edo adiskidetzaila izendatuko da, bi aldeek adostasunez proposaturiko hirukotetik.

Batzorde Parekidearen akordioak hitzarmen honen barnean sartuko dira eranskin bezala eta aurkako xedapenak salbu, 40 eguneko epean exekutatuko dira.

III. KAPITULUA ANTOLAKETA

8. artikulua.– Antolaketa.

1.– Haurreskolak Partzuergoaren antolaketa zuzendaritza organoen eginkizun eksklusiboa da. Langileen lan baldintzetan eragina duten gaiak hitzarmena izenpetu duten langileen ordezkariarekin negoziatuko dira. Antolaketa ahalmenetan eragina duten Partzuergoko erabakiak, berriz, negoziatuz at geratuko dira.

2.– Haurreskolak Partzuergoko unitateko gehieneko ratioak 297/2003 Dekretuko 4. artikuluan ezarritakoaren araberakoak izango dira. Haurreskolak Partzuergoak hezkuntza langile/unitate ratioak aplikatuko ditu, haurren hezkuntza nahiz kontrataturiko pertsonalaren lan eskubideak –hitzarmen honetan adostuak– bermatzeko: ordutegiak, egutegiak, egun libreak, oporrak eta abar. Ratioa egokitzeko, lana eta familia bizitza bateratzeko eskatzen duen ordutegi malgutasuna eta Haurreskolak Partzuergoaren berezitasuna hartuko dira kontuan. Haurreskola Partzuergoak zentzorei kontsultatuko dizkie horien pertsonal beharrak.

3.– Zuzendaritza Batzordeak, Haurreskolak partzuergoko organu errektore nagusi moduan, eta alde soziala entzun ondoren, koordinatzailearen izendapena eta bere karguaren iraupena erregulatuko du.

gan por cualquiera de las partes con una antelación de, al menos, 7 días a excepción de los supuestos extraordinarios previstos en el epígrafe anterior.

4.– Ambas partes someterán a conocimiento y resolución de la Comisión Paritaria, con carácter previo, todas las discrepancias en cuanto a la interpretación, vigencia y aplicación del Convenio, así como otras cuestiones de tipo laboral que afecten al personal incluido en su ámbito de aplicación.

Si no se alcanzare acuerdo en el seno de la Comisión Paritaria, ambas partes podrán someterse a mediación, en cuyo caso, con carácter previo a la adopción de cualquier medida de presión o conflicto, en el plazo de ocho días hábiles se designará el/la correspondiente mediador/a o conciliador/a de entre la terna que ambas partes propongan al efecto de mutuo acuerdo.

Los acuerdos de la Comisión Paritaria formarán parte del presente convenio como anexos y deberán ejecutarse, salvo disposición expresa en contrario, en el plazo de 40 días.

CAPÍTULO III ORGANIZACIÓN

Artículo 8.– Organización.

1.– La organización de Haurreskolak es una función exclusiva de sus órganos directivos. Se negociará con los representantes de los trabajadores firmantes del Convenio aquellas cuestiones que afecten a las condiciones laborales del personal, quedando al margen de la negociación las decisiones del Consorcio que afecten a sus potestades de organización.

2.– Los ratios máximos por unidad del Consorcio Haurreskolak se regirán por el artículo 4 del Decreto 297/2003. El Consorcio Haurreskolak aplicará unos ratios de personal educativo por unidad que garanticen tanto el adecuado tratamiento educativo de los niños y niñas como el cumplimiento de los derechos laborales del personal contratado y acordado en el presente Convenio (horarios, calendarios, días libres, vacaciones, etc.). La adaptación del ratio vendrá determinada por la flexibilidad horaria que exige la conciliación de la vida laboral y familiar y la singularidad de la propia Haurreskola. El Consorcio Haurreskolak consultará con los centros las necesidades de personal de los mismos.

3.– El Comité Directivo como máximo órgano rector del Consorcio Haurreskolak y oída a la parte social, regulará el procedimiento de designación del o de la coordinadora, así como la duración de su cargo.

BIGARREN TITULUA

LANGILEEN SAILKAPENA ETA LANPOSTUEN
HORNIDURA

I. KAPITULUA

LANGILEEN SAILKAPENA ETA FUNTZIOAK

9. artikulua.– Sailkapen profesionala.

1.– Hezkuntza alorreko pertsonala:

Talde bakarra: Hezitzaileak.

2.– Kudeaketa alorreko pertsonala:

A taldea. Goi mailako teknikariak eta tituludunak.

B taldea. Erdi mailako teknikariak eta tituludunak.

C taldea. Langileri administratiboa.

D taldea. Administrari laguntzaileen langileria.

Taldeak zehazteko, eginkizunak hartzen dira oinarritzat, eta, horretarako, gaitasun profesionalak, titulazioak eta eginkizunen eduki orokorra multzokatzen dira.

Talde profesional bakoitzaren baitako mugikortasun funtzionalerako muga bakarrak titulaziotik edo kualifikazio profesionaletik eratorrikoak baino ez dira izango.

Kapitulu honetan, adierazpen xedeetarako bakarrik zerrendatzen dira taldeak; ez dago inolako obligaziorik talde horiek guztiak sortzeko, ezta talde guztietako lanpostuak beteta izateko ere, Partzuergoaren zerbitzurako horrelakorik behar ez bada.

10. artikulua.– Hezkuntza alorreko pertsonalaren eginkizunak.

1.– Haurreskolen antolaketa, jardueren programazioa, ebaluazio prozesuak eta eguneroko kudeaketa aurrera eramaten lagundu behar dute hezitzaileek.

2.– Dagozkien unitateak antolatu eta horien jarduera programak egin behar dituzte hezitzaileek.

3.– Haurren garapen osoaren prozesuari dagozkien egoerez arduratuko dira hezitzaileak. Hauek dira egoera horiek:

– Harreman afektiboak, eta gizarte eta ingurunearekiko harremanak.

– Garbitasuna, elikadura eta atsedena.

– Garapen kognitiboari eta adierazpenekoari lotutakoak, bai eta heziketa prozesuko uneari dagozkionak ere.

4.– Hezitzaileek familiak hartuko dituzte eta haurren hezkuntza prozesuaren berri emango diete.

5.– Hezitzaileek Haurreskolak Partzuergoak antolatutako formakuntzako ekintzetan parte hartu behar dute, haurreskolan bertan edo kanpoan.

6.– Hezitzaileak zentroko koordinatzaile izenda daitezke. Hala gertatuz gero, honako eginkizun hauek ere izango dituzte:

TÍTULO SEGUNDO

CLASIFICACIÓN Y PROVISIÓN DE
PERSONAL

CAPÍTULO I

CLASIFICACIÓN DEL PERSONAL Y FUNCIONES

Artículo 9.– Clasificación Profesional.

1.– Personal educativo:

Grupo único: Educadores y educadoras.

2.– Personal de gestión:

Grupo A. Técnicos y técnicas y titulados y tituladas de grado superior.

Grupo B. Técnicos y técnicas y titulados y tituladas de grado medio.

Grupo C. Personal administrativo.

Grupo D. Personal auxiliar administrativo.

Los grupos se definen a partir de las funciones desempeñadas, agrupando unitariamente aptitudes profesionales, titulaciones y contenido general de la prestación.

La movilidad funcional dentro de cada grupo profesional no tendrá otros límites que los derivados de la titulación o cualificación profesional.

La enumeración de grupos que contiene este capítulo es enunciativa y no implica la obligatoriedad de su creación ni tener cubiertas todas los grupos mientras las necesidades del servicio del Consorcio no lo requieran.

Artículo 10.– Funciones del Personal Educativo.

1.– Los y las educadoras colaboran en la organización, programación de actividades y procesos de evaluación, así como en la gestión cotidiana de cada haurreskola.

2.– Las y los educadores organizan y programan las actividades de la unidad de la que son responsables.

3.– Los y las educadoras atienden las situaciones del proceso de desarrollo integral del o de la niña:

– Las afectivas y las relativas a las relaciones sociales y del entorno.

– Las higiénicas, alimenticias y de descanso.

– Las relativas al desarrollo cognitivo, expresivo y momento evolutivo en el que se encuentra.

4.– Las y los educadores atienden e informan a las familias del proceso educativo de sus hijos e hijas.

5.– Los y las educadoras participan en las actividades de formación organizadas desde el Consorcio, tanto dentro de la propia haurreskola como fuera de ella.

6.– Las y los educadores podrán ser nombrados coordinadores y coordinadoras de centro teniendo además, en ese caso, las siguientes funciones:

6.1.– Koordinatzaileak Partzuergoaren ordezkari ofizial dira haurreskolan. Halaber, haurreskolaren ordezkari ofizial dira Partzuergoaren, udalen, familien, eta, oro har, hirugarrenen aurrean.

6.2.– Koordinatzaileari dagokio hezkuntza alorreko pertsonalaren nahiz zentroaren ordutegia eta egutegia antolatzea, Partzuergoak ematen duen zerbitzuaren eta gurasoen eskariaren arabera. Horretarako, hezkuntza alorreko gainerako langileekin elkarlanean arituko da. Partzuergoaren egitekoa da ordutegi eta egutegi horiek onartzea.

6.3.– Koordinatzaileek egin behar dute haurreskolen antolaketa, bertako jardueren programazioa eta haurreskolen eguneroko kudeaketa. Egiteko horietan ere, hezkuntza alorreko gainerako langileekin elkarlanean arituko dira.

6.4.– Koordinatzaileek hezitzaileekin egingo dute lan, haurren garapen osoaren prozesuari dagozkion egitekoetan (aurreko ataletan aipatu dira).

6.5.– Koordinatzaileari haurreskolaren gastuen kontrola dagokio eta Haurreskolak Partzuergoko Administrazio zerbitzuak eskatutako dokumentazioa igortzeko ardura dauka.

11. artikulua.– Kudeaketa alorreko pertsonalaren eginkizunak.

Hona hemen kudeaketa alorreko pertsonalari dagozkion eginkizunak.

Partzuergoko kudeaketa alorreko langileen A taldeari honako eginkizun hauek dagozkio: administrazio esparruko programazioari, kudeaketari, exekuzioari, ikuskaritzari edo kontrolari lotutako goi mailako azterketa eta proposamen lanak egitea eta/edo talde horretan sartzeko eskaturiko titulazioak gaitzen dituen lanbideari dagozkion lanak. Halaber, prestakuntza akademiko jakin bati dagozkion ezagutza berariazkoak eta zehatzak eskatzen dituzten eginkizunak betetzea.

Kudeaketa alorreko langileen B taldeari honako eginkizun hauek dagozkio: goi mailako eginkizunetan lankidetzan aritzea, araudiak aplikatzea, espediente normalizatuak ebazteko proposamenak egitea, eta goi mailari ez dagozkion ikerketak eta azterketak egitea, bai eta B taldean sartzeko eskaturiko titulazioari dagokion lanbideko lanak ere. Halaber, prestakuntza akademiko jakin bati dagozkion ezagutza berariazkoak eta zehatzak eskatzen dituzten eginkizunak betetzea.

Kudeaketa alorreko pertsonaleko C taldeari honako eginkizun hauek dagozkio: lankidetzan lanak, goi mailatik eratorriak edo horiek prestatzekoak; agiriak egiaztazea eta, horien konplexutasuna dela-eta, goi mailakoak ez direnak prestatzea; mekanografia, esku edo kalkulu lanak egitea; eta jendeari argibideak eta arreta ematea.

Kudeaketa alorreko pertsonaleko D taldeari honako eginkizun hauek dagozkio: administrazio jardura alo-

6.1.– El o la coordinadora representa oficialmente al Consorcio en la haurreskola y a ésta ante el Consorcio, Ayuntamiento, familias y en general ante terceros.

6.2.– La o el coordinador es la persona encargada de organizar, en colaboración con el resto del personal educativo, el horario y calendario de las y los educadores así como del centro en función de las necesidades de la prestación del servicio ofrecido por el Consorcio y la demanda de padres y madres. Estos horarios y calendarios deberán ser aprobados por el Consorcio.

6.3.– El o la coordinadora materializa la organización de la haurreskola, la programación de sus actividades y la gestión ordinaria de la haurreskola, también en colaboración con el resto del personal educativo.

6.4.– La o el coordinador colabora con los y las educadoras en las funciones relativas a la atención de las situaciones de proceso de desarrollo integral de los y las niñas que se detallan en los apartados anteriores.

6.5.– El o la coordinadora es responsable de llevar el control de gastos de la haurreskola y de remitir la documentación que sobre ello le solicite el servicio de Administración del Consorcio Haurreskolak.

Artículo 11.– Funciones del Personal de Gestión.

Las funciones del personal de gestión son las siguientes:

Al Grupo A del personal de gestión del Consorcio le corresponde el desempeño de tareas de estudio y propuesta de nivel superior, comunes a la actividad administrativa en áreas de programación, gestión, ejecución, inspección o control y/o la realización de tareas propias de la profesión para cuyo ejercicio habilite la titulación exigida para el acceso al Grupo, así como el desempeño de funciones que requieran de conocimientos propios y específicos de una concreta formación académica.

Al Grupo B del personal de gestión le corresponde el desempeño de funciones de colaboración con las de nivel superior, las de aplicación de normativa, propuestas de resolución de expedientes normalizados y estudios e informes que no correspondan a tareas de nivel superior y/o la realización de tareas propias de la profesión para cuyo ejercicio habilite la titulación exigida para el acceso al Grupo, así como el desempeño de funciones que requieran de conocimientos propios y específicos de una concreta formación académica.

Al Grupo C del personal de gestión le corresponde el desempeño de tareas de colaboración preparatorias o derivadas de las de nivel superior, la comprobación de documentación y la preparación de aquella que, por su complejidad, no sea propia de Grupos superiores; tareas mecanográficas, manuales o de cálculo numérico, y de información y despacho al público.

Al Grupo D del personal de gestión le corresponde el desempeño de tareas de carácter auxiliar en las áreas

rreko laguntza lanak; mekanografia lanak eta posta bideratzea; kalkulu errazeko lanak; agiriak transkribatzea, artxibatzea, sailkatzea eta erregistratzea; fitxategiak; jendea hartzea, eta antzekoak.

Talde horietan sartzeko, ezinbestekoa izango da talde bakoitzarentzat Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 43. artikuluan ezarritako titulazioa izatea.

II. KAPITULUA HORNIDURA

12. artikulua.- Kontratazioak.

1.- Langileekiko harremanak direla-eta, Haurreskolak Partzuergoak indarrean dagoen legediak araututako kontratu motak erabili ahal izango ditu. Aukeratutako kontratu mota edozein dela ere, langilearekin eratutako kontratu harremana kontratatu izan den Lurralde Historikoetako zentroetan zerbitzuak emateko izango da. Aurreko xedapenean ezarritakoa ez zaio aplikatzen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuko bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren araberako kontraturiko pertsonalari.

2.- Kontratuan lanaldi osoko kontratua duen langile bati egunean, astean, hilean edo urte osoan dagozkion baino lan ordu gutxiago adosten badira, kontratu hori lanaldi partzialekotzat joko da. Horrelako kontratuak ezingo du lanaldi osoko kontratuaren % 50etik beherakoa izan, baina salbuespenak egingo dira bai lanaldia murrizteko eskubidea duten langileek utzitako lanordua betetzeko egiten diren bitarteko kontratuetan, bai errelebo-kontratuetan.

3.- Lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak ordezkatu behar badira, ordezkapena egitean, honako hauek adierazi behar dira: ordezkaturiko langilearen izena, eta ordezkapenaren iraupena (hori aurretik jakiterik baldin badago) eta arrazoia.

4.- Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 15.1.b artikulua araberako egindako lan-kontratuak gehienez bederatzita hilabetekoak izango dira, hamabi hilabeteko epean. Epe hori kontatzen hasten da kontratua ahalbidetzen duen arrazoia edo egoera gauzatzen den egun berean. Horrelako kontratuak egin ahal izango dira, ikasturte bakoitzaren iraunaldian, matrikulazioen kopuruak gora egiten duenean eta Haurreskoletako momentuko beharren araberako.

Haurreskolak Partzuergoak 2008-2009 ikasturtean lan poltsa bat sortuko du ibiltariekin, hain zuzen ere gutxienez zortzi hezitzaileekin (hiru Bizkaian, hiru Gipuzkoan eta bi Araban). Ibiltarien lan poltsaren araudia Mahai Parekidean adostuko da eta ikasturtea bukatzen denean neurri honen eraginkortasuna baloratuko da.

de actividad administrativa; mecanografía y despacho de correspondencia; cálculo sencillo; transcripción de documentos, archivo, clasificación y registro; ficheros y atención al público, o similares.

Para el acceso a estos Grupos se exigirá la posesión de la titulación que para los mismos grupos se establece en el artículo 43 de la Ley 6/1989 de Función Pública Vasca.

CAPÍTULO II PROVISIÓN

Artículo 12.- Contrataciones.

1.- El Consorcio Haurreskolak en la relación con su personal podrá utilizar las modalidades contractuales que permita la legislación aplicable. Independientemente de la modalidad contractual elegida, la relación contractual que el personal establece con el Consorcio lo es para prestar sus servicios en cualquiera de los centros del Territorio Histórico para el que ha sido contratado. Se exceptúa de lo previsto en la disposición anterior el personal contratado en virtud de lo dispuesto en las disposiciones adicionales Segunda, Tercera y Cuarta del Decreto 215/2004 de 16 de noviembre.

2.- El contrato de trabajo se entenderá firmado a tiempo parcial cuando se haya acordado la prestación de servicios durante un mínimo de horas al día, a la semana, al mes o al año, inferior a la jornada de un trabajador equivalente a tiempo completo. Este contrato no podrá ser nunca menor al 50% del contrato a jornada completa, a excepción de los contratos de interinidad para sustituir al personal con derecho a reducción de jornada que se podrán realizar por el porcentaje de jornada que quede vacante y de los contratos de relevo.

3.- Cuando se trate de sustituir a trabajadores/as con derecho a reserva del puesto de trabajo, se hará constar el nombre del trabajador/a sustituido/a, la duración de la sustitución en los casos en que la misma sea previsible y la naturaleza de la misma.

4.- La duración máxima de los contratos celebrados al amparo del artículo 15.1.b) del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, será de un total de nueve meses en un período de doce meses, computándose el mismo a partir de la fecha en que se produzca la causa o circunstancia que justifique su utilización. Estos contratos podrán celebrarse dentro del período de cada curso escolar en atención al incremento de matriculaciones y a las necesidades eventuales de personal en las haurreskolas.

El Consorcio Haurreskolak contratará para el curso escolar 2008-2009 un mínimo de ocho educadores y educadoras como itinerantes (tres en Bizkaia, tres en Gipuzkoa y dos en Álava). La regulación de esta bolsa de personal itinerante será negociada en la Comisión Paritaria y tras el primer año en funcionamiento será valorada su efectividad.

5.– Lan kontratuak diren motatakoak direla ere, idatziz eta hiru aletan egin behar dira: kopia bana sinatzen duen alde bakoitzarentzat, eta hirugarrena, berriz, ordezkaritza sindikalarentzat.

6.– Langileak kontratatzean, Partzuergoak hori Aldi Baterako Laneko Enpresen bitartez ez egiteko konpromisoa hartzen du, baita praktiketako kontratuak ez egitekoa ere. Halaber, Hitzarmen honetako 10. artikuluan adierazitako eginkizunei dagokienez, horiek betetzeko azpikontratazio formulak ez erabiltzeko konpromisoa hartzen du.

7.– Jardun partziala duten langileek lehentasuna edukiko dute bere jarduna burutzen ari den haurreskolako langileen behin behineko beharrak betetzerakoan, bere lankideen ez bertaratzeak bere lanpostuaren erreserbarako eskubidea eragiten duen kasuetan (aldi baterako ez-gaitasuna, oporrak, baimenak...). kontratazio hau aldi baterako kontratu baten bidez burutuko da, zehazketan, ordezkaria izan den langilearen izena, aurreikusi daitekeenean ordezkariaren iraupena eta bere izaera zehaztuko den.

13. artikulua.– Atxikipenak.

Langilea Haurreskola zehatz bati atxikita egon arren, sor daitezkeen egoerak edo arrazoiak bultzatuta, beste batera atxiki ahal izango da edo atxikipen modua aldatu ahal izango da.

Honako arrazoi hauek izanez gero, langilearen atxikipena aldatzeko aukera izango du zuzendaritzak: antolaketa arrazoiak, beharretara egokitu beharra, eta zerbitzuaren kalitatearekin lotutako arrazoiak. Aldaketa horiek egiteko, hilabete lehenago abisatu beharko da, baldin eta larrialdiek edo zerbitzua eman beharrak hala eskatuta aldaketa epe laburragoan egin beharra suertatzen ez bada, behintzat.

Irizpide hauek erabiliko dira beste leku batera atxikita dauden pertsonak aukeratzeko:

- Borondatezko eskaerak onartzen saiatzea.
- Haurreskolan antzinatasuna errespetatzea.
- Plazen esleipenaren ordena errespetatzea.
- Ordezkapen politaren ordena errespetatzea.

Hezitzaileek Partzuergoak hartutako berraxikitzeko erabakiarekiko desadostasuna adierazten badute, auzia Batzorde Parekidean eztabaidatuko da.

Halaber, azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuko bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera kontratatu ez den pertsonalak borondatez zentroz aldatzeko aukera izango du, Partzuergoak horretarako ezartzen dituen prozeduren bitartez.

14. artikulua.– Probaldia.

Oro har, 6 hilabeteko probaldia ezartzen da kontraturiko langile guztientzat.

5.– Los contratos de trabajo, cualquiera que sea su modalidad, deberán realizarse por escrito y por triplicado, quedándose un ejemplar cada una de las partes y la tercera copia a disposición de la representación sindical.

6.– El Consorcio se compromete a que no se contraten los servicios del personal a través de Empresas de Trabajo Temporal ni a realizar contratos de prácticas. Asimismo, se compromete a que no se acuda a fórmulas de subcontratación para la realización de las funciones requeridas en el artículo 10 de este Convenio.

7.– El personal con contrato a tiempo parcial tendrá preferencia para cubrir necesidades temporales de personal de la haurreskola en la que se encuentre prestando sus servicios, en los casos de inasistencia de sus compañeras o compañeros por causas que motiven el derecho a reserva del puesto de trabajo (incapacidad temporal, vacaciones, licencias, etc.). Esta contratación se formalizará mediante contrato de interinidad en el que se hará constar el nombre del o de la trabajadora sustituida, la duración de la sustitución en los casos en que la misma sea previsible y la naturaleza de la misma.

Artículo 13.– Adscripciones.

Las adscripciones a cada centro concreto se realizan sin perjuicio de que distintas razones o necesidades requieran una adscripción diferente o cambios en las adscripciones realizadas.

Razones organizativas, de adecuación a las distintas necesidades o de calidad del servicio, facultan a la dirección a cambiar la adscripción. Se establece un plazo de preaviso de un mes, salvo que por razones urgentes o necesidades perentorias del servicio se deba llevar a cabo en menos tiempo.

Para seleccionar a la persona que va a ser reasignada se establecen los siguientes criterios:

- Intentar aceptar peticiones voluntarias.
- Respetar antigüedad en el centro.
- Respetar el orden de la adjudicación de plazas.
- Respetar el orden de la bolsa de sustituciones.

En el caso de que exista desacuerdo expreso por parte de los y las educadoras con la decisión de readscripción adoptada por el Consorcio, el tema se discutirá en la Comisión Paritaria.

Asimismo, las y los educadores que no hayan sido contratados en virtud de lo dispuesto en las disposiciones adicionales Segunda, Tercera y Cuarta del Decreto 215/2004, de 16 de noviembre, podrán cambiar voluntariamente de adscripción al centro a través de los procedimientos que al efecto se establezcan en el Consorcio.

Artículo 14.– Periodo de prueba.

Se establece un periodo de prueba general para todo el personal contratado de 6 meses.

15. artikulua.– Lana borondatez uztea.

Lana borondatez utzi nahi duten langileek idatziz jakinarazi beharko diote Partzuergoari lana uzteko asmoa, 15 eguneko aurrerapenez. Ez bada aurrez jakinarazteko obligazioa betetzen, soldatetik deskontatuko da aurrez jakinarazi gabeko egunei dagokien zenbatekoa.

16. artikulua.– Pertsonal finkoa hautatzeko prozesuak.

Pertsonal finkoa hautatzeko prozesuak legedian eta Haurreskolak Partzuergoaren estatutuetan ezarritako prozeduren arabera egingo dira.

Hautaketa prozesu horietan eskainitako lanpostuak lanaldi osokoak izango dira.

Haurreskolak Partzuergo 2009 urteko Lan Eskaintza Publikoa, gutxienez, 125 lanpostu betetzeko egingo dela konprometitzen da.

17. artikulua.– Errelebo kontratua.

1.– Langileen batez besteko adina gaztetzeko, 60 urte eta 65 urte artean dituzten langileek erretiro partziala hartzeko aukera izango dute, 65 urte bete arte. Erretiro partziala hartzeko, Gizarte Segurantzak erretiroa hartzeko eskatzen dituen baldintzak bete beharko dira.

2.– Erretiro partziala hartzeko eskaera egoera horretan hasia aurreikusten den data baino hiru hilabete lehenago egin behar da.

3.– Lanaldiaren murrizketa % 85ekoa izango da. Erretiro partzialak hartzearekin batera, hura hartu duen langilearen ordezkapeneko kontratu bat egingo da. Kontratu hori lanaldiaren % 100ekoa izango da.

4.– Txandatuak langileak hala nahi badu, erretiroa behin betiko hartu arte geratzen zaizkion lanegunak pila ditzake, eta horiek hasieratik egin.

Langilearen eta Partzuergoaren artean epe horri buruz desadostasunik badago, auzia Batzorde Parekidearen aurrean aurkeztuko da.

5.– Errelebo kontratuak txandatuak izan diren langileen lanpostu berak edo antzeko lanpostuak betetzeko egin daitezke, eta txandatuak izan diren langileak erretiro osoa hartzen dutenean amaituko dira. Nolanahi ere, txandatuak izan diren langileek 65 urte betetzean hartuko dute erretiro osoa.

6.– Indarreko lan poltsen sistematik aukeratuko dira errelebo kontratuetan kontratatuko diren langileak.

7.– Batzorde Parekideak 2006ko azaroaren 28an erabakitakoaren arabera –eta dagokion aktan horrela jasotzen da– osotasunean mantentzen da 2006ko urtarrilaren 23an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren argitaratutako haurreskoletarako Hitzarmen Kolektiboaren 17. artikulua. Horren arabera, data horretan indarrean zegoen erretiro partzialaren erregimen juridiko

Artículo 15.– Ceses.

El personal que desee cesar voluntariamente deberá hacerlo por escrito y con un preaviso de 15 días al Consorcio. En caso de falta de preaviso se descontarán tantos días de salario como días de incumplimiento de preaviso.

Artículo 16.– Procedimientos selectivos de personal estable.

Los procedimientos selectivos del personal estable se realizarán conforme a los procedimientos previstos en la ley y los Estatutos del Consorcio Haurreskolak.

Las plazas que se oferten en estos procedimientos selectivos serán de jornada completa.

El Consorcio Haurreskolak se compromete a realizar la Oferta Pública de Empleo del 2009 para ofertar, al menos, 125 puestos de trabajo.

Artículo 17.– Contrato de Relevo.

1.– Con el objetivo de hacer posible el rejuvenecimiento de las plantillas, los trabajadores y trabajadoras, con un mínimo de 60 años de edad, y como máximo hasta el cumplimiento de los 65 años, podrán acceder a la jubilación parcial, siempre que reúnan las condiciones establecidas por la Seguridad Social para tener derecho a la jubilación.

2.– La solicitud de jubilación parcial deberá realizarse con un mínimo de 3 meses de antelación a la fecha en la que se prevé el paso a dicha situación.

3.– La reducción de jornada será del 85%. Simultáneamente se formalizará un contrato de sustitución del 100% del tiempo de la persona relevada.

4.– En el caso de que el o la trabajadora relevada quisiera se podrá acumular los días que le corresponden trabajar hasta su jubilación definitiva y trabajarlos desde el principio.

En caso de discrepancia entre la o el trabajador y el Consorcio sobre la fijación de dicho periodo, el caso se someterá a examen en la Comisión Paritaria.

5.– El contrato de relevo correspondiente podrá ser por el mismo puesto de trabajo del o de la trabajadora relevada, o por uno similar, y finalizará al acceder la o el trabajador relevado a la situación de jubilación total. En todo caso el o la trabajadora relevada se jubilará de forma total al cumplir 65 años.

6.– Las y los trabajadores que suscriban el contrato de relevo serán seleccionados a través del sistema de bolsas que esté vigente.

7.– De conformidad con lo acordado y recogido en el acta de la Comisión Paritaria de 28 de noviembre de 2006, se mantiene en su integridad la redacción del artículo 17 del Convenio Colectivo del sector Haurreskolak publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 23 de enero de 2006, según el cual dicho precepto y el régimen jurídico de la jubilación parcial vigente en

koak 2009ko abenduaren 31rarte iraungo du, baldin eta legeriak ahalbidetzen badu.

18. artikulua.— Ordezkapenak.

Haurreskolak Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeari dagokio ordezkapen-araudia xedatzea. Erabaki horiek hartzeko, Zuzendaritza Batzordeak langileen ordezkariekin negoziatuko du aplikatu beharreko araudia.

Zerrendak urtero eguneratuko dira, zerbitzu berriak emateko aukera aztertzeko eta aurrez egindako hautapenak aldatzeko aukera izateko.

HIRUGARREN TITULUA

LAN DENBORA

19. artikulua.— Urteko lanaldia.

1.— Kudeaketa alorreko pertsonalaren lan denbora.

Kudeaketa alorreko pertsonalaren urteko lanaldi normalizatua 1592 ordukoa izango da.

Lanaldi zatituko eta normalizatuko erregimenean aplikatuko dira, eta hori goizeko eta arratsaldeko jardunaz osatzen da. astelehenetik ostegunerako benetako lanaldi zatituak lan egutegian urtero zehazten den iraupena izango du.

Ostiraletako lanaldi etengabea 7 ordukoa izango da.

Udako lanaldi etengabea sei ordu eta erdikoa izango da. 17 asteko iraupena izango du, ekainaren lehen edo bigarren astelehenetik hasita.

2.— Hezkuntza alorreko pertsonalaren lan denbora.

Hezkuntza alorreko pertsonalaren urteko lanaldi normalizatua 1577 ordukoa izango da. 2008-2009 ikasturterako eta 1570 ordukoa 2009-2010 ikasturterako.

Haurreskola bakoitzeko koordinatzaile izendaturiko pertsonak diseinatuko du lan denboraren banaketa, Patzuergoko Zuzendaritzak haurreskolentzat ezarritako baldintzen arabera, eta lanaldi homogeneoak edo aldakorrak zehaztu ahal izango dituzte.

Koordinatzaileak zehaztu behar du, hezkuntza alorreko gainerako langileekin batera, hezitzaileen eta haurreskolaren ordutegia eta hezitzaileen egutegia; betiere, Partzuergoak ematen duen zerbitzua behar bezala betetzeko dauden premiei eta haurren ordezkariekin eskaerei errepertuz. Partzuergoak onartu beharko ditu ordutegi eta egutegi horiek.

Finkatutako lan denbora hori aldatu ahal izango da, haur kopurua edo horien ezaugarriak aldatzen badira. Horrelako kasuetan, lan denbora aldatzeko eraginiko hezitzaileei kontsultatuko zaie, eta, Partzuergoaren Zuzendaritzarekin ados ez badaude, auzia Batzorde Parekiduan eztabaidatuko da.

aquella fecha regirá hasta el 31 de diciembre de 2009, siempre que la legislación lo permita.

Artículo 18.— Sustituciones.

La determinación de la normativa de sustituciones es atribución del Comité Directivo del Consorcio haurreskolak. Para ello el Comité Directivo negociará con la representación del personal la normativa a aplicar al efecto.

Las listas se actualizarán cada año para valorar nuevos servicios y poder cambiar opciones anteriores.

TÍTULO TERCERO

TIEMPO DE TRABAJO

Artículo 19.— Jornada anual.

1.— Tiempo de trabajo del personal de gestión.

La jornada de trabajo anual normalizada para este personal será de 1.592 horas.

Se aplicarán en régimen de jornada partida y normalizada que se compone de jornada de mañana y tarde. La jornada partida efectiva diaria de trabajo de lunes a jueves tendrá la duración que se determine anualmente en el calendario laboral.

La jornada continuada de los viernes (excluidos los comprendidos en el periodo de jornada de verano) será de 7 horas.

La jornada continuada de verano, que tendrá una duración de 17 semanas comenzando el primer o segundo lunes de junio será de seis horas y media de trabajo efectivo diario.

2.— Tiempo de trabajo del personal educativo.

La jornada de trabajo anual normalizada para el personal educativo será de 1.577 horas para el curso 2008-2009 y de 1.570 horas para el curso 2009-2010.

La persona designada como coordinadora del centro de cada Haurreskola diseñará la distribución del tiempo de trabajo según las condiciones establecidas por la Dirección del Consorcio para las haurreskolak, pudiendo determinar jornadas homogéneas o desiguales.

La o el coordinador es la persona encargada de organizar, en colaboración con el resto del personal educativo, el horario y calendario de los y las educadoras en función de las necesidades de la prestación del servicio ofrecido por el Consorcio y la demanda de los representantes de las y los niños a atender. Estos horarios y calendarios deberán ser aprobados por el Consorcio.

El tiempo de trabajo así fijado, podrá ser alterado por cambios en el número o características de los niños a atender. En estos casos los y las educadoras implicadas en la alteración del tiempo de trabajo serán consultados y en caso de discrepancia con la Dirección del Consorcio se debatirá en la Comisión paritaria.

Partzuergoak ezarritako zentroyen irekieraren eskaintzaren mugen barnean, ez da hezitzaileen lan baldintzen funtsezko aldaketa bezala hartuko hezitzaileen ordutegi-en aldaketa edota txanda aldaketa salbu kurtsoan zehar jardunaldi murrizketa bat suposatzen badu.

20. artikulua.– Hezkuntza alorreko pertsonalaren eguneko lanaldia.

3.– Ezkontza langilearen gurasoena, aita-amaginarrebena, neba-arrebena, suhi-errainena, seme-alabena, ilobena edo aitona-amonena bada, langileak ezkontza egunerako izango du lizentzia, baina, ospakizuna langilearen bizilekutik 150 km baino urrutiago egiten bada, lizentzia egutegiko hiru eguneko izango da.

34. artikulua.– Senideen gaixotasun larriagatik edo heriotzagatik lizentzia.

1.– Langileak arrazoi honengatik har dezakeen lizentziaren iraupenaldiak honako hauek dira: odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen heriotzagatik, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen heriotzagatik, 3 lanegun; eta ezkontzaren, bikotekidearen edo seme-alabaren egiazaturiko gaixotasun larriagatik edo

la o el trabajador perciba el 100% de sus retribuciones durante la situación de suspensión del contrato por adopción y acogimiento. Cuando el o la trabajadora no tenga derecho a dichas prestaciones económicas el Consorcio no realizará ningún abono.

6.– Quien pretenda disfrutar de estas licencias deberá comunicarlo por escrito al Consorcio en el transcurso del día laborable siguiente al momento del hecho causante y con concreción de las fechas de inicio y final de las mismas. Sin perjuicio de dicha comunicación, deberá, en cualquier caso, poner en conocimiento del Consorcio Haurreskolak el cambio de situación de incapacidad temporal al acogimiento y adopción y viceversa.

Artículo 33.– Licencia por matrimonio propio o de parientes.

1.– Por razón de matrimonio propio, la o el trabajador tendrá derecho a una licencia de 20 días naturales consecutivos de duración que podrá disfrutar con anterioridad o posterioridad a su celebración, incluyendo dicha fecha en ese período. Esta licencia se podrá acumular al período vacacional con anterioridad o posterioridad a su disfrute, comunicándolo con un plazo mínimo de 15 días de antelación al Consorcio.

2.– Igualmente tendrá derecho a esta licencia el o la trabajadora que inicie una convivencia estable en pareja (uniones no matrimoniales), siempre que se acredite mediante certificado de convivencia expedido por el Ayuntamiento del Municipio donde las personas convivientes estuvieran domiciliadas, o en su caso mediante certificación de Registro Municipal de Uniones Civiles, cuando éste existiera.

No cabrá disfrutar nueva licencia por matrimonio o inicio de convivencia estable hasta tanto haya transcurrido un período de 6 años, y en ningún caso cuando los miembros que forman la pareja sean los mismos.

El disfrute de los días objeto de la concesión de las licencias reguladas en el presente apartado, comprenderá necesariamente el día en que se produzca el hecho causante que las motivan (inicio de la convivencia, fecha de registro).

3.– Cuando el matrimonio lo contraigan padres/madres, padres políticos/madres políticas, hermanos/as, hermanos/as políticos/as, hijos/as, nietos/as o abuelos/as del personal, éste tendrá derecho a una licencia de un día natural, en la fecha de la celebración que se ampliará a 3 días naturales si la celebración se efectuase a más de 150 km del lugar de residencia del o de la trabajadora.

Artículo 34.– Licencia por enfermedad grave o fallecimiento de parientes.

1.– La licencia a que tienen derecho el personal por este concepto, contiene los siguientes períodos de duración: 3 días laborables por fallecimiento de familiares hasta 2.º grado de consanguinidad y afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, y 5 días laborables por enfermedad grave justificada, o fallecimiento del cónyuge, compañero, compañera, hijo o hija. Por

heriotzagatik, 5 lanegun. Bi lanegun izango ditu odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larriagatik edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen gaixotasun larriagatik.

2.– Aipaturiko lizentzia aldiei egutegiko 2 egun gehiago gehituko zaizkie, gertakizunak langilearen ohiko bizilekutik 150 km baino urrutiago gertatzen badira.

3.– Odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiaztaturiko gaixotasun larrien kasuan, epealdi berdineko beste lizentzia bat hartzeko eskubidea izango du langileak, lehenengo lizentzia bukatzen denetik ondorengo 30 egun igaro ondoren. Behar bezala egiaztatutako azken-buruko gaixotasunen kasuan, berriz, ez da 30 eguneko epe hori aplikatuko, eta ezin izango da erabili ohiko bizitokiko distantziagatikozuzapena.

Langileak odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideen egiaztaturiko gaixotasun larriagatikozuzapena, edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideen egiaztaturiko gaixotasun larriagatikozuzapena hartzen badu, eta, baimenarekin dagoen bitartean, gaixoa hiltzen bada, heriotzako baimeneko egunak heriotza gertatzen den egunetik hasiko dira kontatzen.

4.– Gaixotasun larritzat hartuko dira, artikuluko honen xedapenatarako, ospitalizazioa eragiten duten gaixotasunak, edota, ospitalizaziorik gabeko interbentzio kirurgikoa egin eta ondoren etxean atsedean hartu behar denean. Ahal den neurrian, baimena hartu aurretik, behar-beharrezkoa da medikuntza-zerbitzuek emandako ziurtagiriak aurkeztea.

5.– Artikuluko honetan araututako lizentziatarako ezarritako lanegunak hartzerakoan, baimena emateko arrazoi den kasua gertatzen den egunean hasiko dira kontatzen nahitaez lizentzia egunak.

35. artikulua.– Nahitaezko betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak betetzeko lizentzia.

1.– Ezinbestez bete behar diren betebeharrak publikoak edo norberaren betebeharrak egiteko, behar beste denbora izango dute langileek, baldin eta lanorduetatik kanpo egiterik ez badago beti ere.

2.– Edonola ere, Hitzarmenari dagokionez, hurrengoak hartuko dira nahitaezko betebeharrak publikotzat eta norberaren betebehartzat:

a) Epaitegien, komisarien, gobernu zibilen edo militarren zitazioak, arma ikuskapenak, NANA, pasaporteak, egiaztagiriak eta erregistro izapideak, erakunde ofizialetan.

b) Elbarri fisikoak edo psikikoak diren odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideei izapide zehatzak egiten laguntzea.

enfermedad grave justificada, de familiares hasta 2.º grado de consanguinidad y afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, se dispondrá de dos días laborables.

2.– Los citados períodos de licencia se ampliarán en 2 días naturales más, si los hechos motivados se producen a más de 150 km del lugar de residencia habitual del o de la trabajadora.

3.– En los casos de enfermedad grave justificada de familiares hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, el personal tendrá derecho a una segunda licencia, por el mismo período de duración, pasados 30 días consecutivos desde la finalización de la primera licencia, a excepción del supuesto de que se trate de enfermedades terminales debidamente acreditadas en que no jugará el citado plazo de 30 días, sin que sea de aplicación, en este caso, la ampliación por distancia de la residencia habitual.

En el caso de acogerse al permiso de enfermedad grave justificada de familiares de consanguinidad o afinidad hasta 2.º grado, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, si durante la duración del mismo se produjese el fallecimiento de la persona enferma, se contabilizarán a partir de la fecha del fallecimiento los días correspondientes al permiso de defunción.

4.– Se entenderá por enfermedad grave, a efectos de lo dispuesto en el presente artículo, aquella que requiera hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise reposo domiciliario, debiendo, en la medida de lo posible, justificarse con anterioridad a su disfrute mediante certificación expedida por los correspondientes servicios médicos.

5.– El disfrute de los días objeto de la concesión de las licencias reguladas en el presente artículo, se iniciará, necesariamente, en las fechas en que se produzca el hecho causante que las motivan.

Artículo 35.– Licencia por cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público o personal.

1.– Para el cumplimiento de deberes inexcusables de carácter público o personal, el personal tendrá derecho a una licencia por el tiempo necesario para su cumplimiento, siempre y cuando no sea posible efectuarse fuera del horario de trabajo.

2.– En todo caso, a estos efectos se considerarán deberes inexcusables de carácter público o personal los siguientes:

a) Citaciones de juzgados, comisarías, gobiernos civiles o militares, revista de armas, DNI, pasaporte, certificados y registros en centros oficiales.

b) Acompañamiento a parientes minusválidos psíquicos o físicos, hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad a la realización de trámites puntuales en razón de su estado.

c) Gida baimena eskuratzeko edo berritzeko azterketa.

d) Notariotzako errekerimenduak eta izapideak.

e) Erakunde ofizialetan egin beharreko izapideak.

f) Zinegotzi, diputatu, ahaldun edo legebiltzarkide gisako hautetsi legez, gobernu organoen eta berauen menpeko batzordeen bileretara joatea.

36. artikulua.– Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik lizentzia.

Langileak ohiko bizilekuaz aldatu behar duenean, 2 laneguneko lizentzia hartzeko eskubidea izango du. Horretarako Udalak emandako errolda-ziurtagiriaz egiazta-tu beharko du aldaketa.

Bi lizentzia-egunak beti ere jarraian hartu beharko ditu, eta bi egun horietako bat errolda-ziurtagirian agertzen den etxebizitza aldatzearen data izango da nahitaez.

Lizentzia hori hartu ostean, langileak ezin izango du etxebizitzaz aldatzeko beste lizentzia bat hartu harik eta urte bat pasatu arte.

37. artikulua.– Sindikatuaren edo langileriaren ordezkari gisa jarduteko lizentzia.

Sindikatuaren edo langileriaren ordezkari lanak egiten dituzten langileek horri dagokion lizentzia hartzeko eskubidea izango dute, indarrean dagoen araudian eta hitzarmen honetan jasotako baldintzen arabera.

38. artikulua.– Adingabeak, ezgaituak edo odol ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko edota norberaren gaixotasunagatik hartutako baimena.

Legez agindutako zaintza duelako, langileak zuzenean bere ardurapean hamabi urtetik beherako adingabekoren bat, edo ordaindutako lanik egiten ez duen ezgaitu fisikoren, psikikoren edo sentorialen bat, edo larriki gaixotuta dagoen eta berarekin bizi den odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat –edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat– badu, edo, halaber, langilea bera gaixotzen bada, orduan, lanaldi arrunta murrizteko baimena eskatu ahal izango du. Murrizketa hori lanegunaren zortzirena izango da gutxienez edo erdikoa gehienez, eta ordainsarien atal guztien heineko beherapena ekarriko du horrek.

Lizentzia hori hartu ahal izateko, idatziz jakinarazi behar zaio Haurreskolak Partzuergoari, gutxienez 15 egun lehenago. Idazkian zehaztu behar da noiz hasiko den eta noiz amaituko den lizentzia, eta zein izango den ordutegia; dena den, Partzuergoak eta langile interesatuek ordutegi hori negoziatu dezakete. Langileak Partzuergoari jakinarazi behar dio noiz hasiko den lanean ohiko ordutegian, eta betiere 15 egun lehenago eman behar du horren berri. Lizentzia emateko arrazoi izan

c) Examen o renovación del carné de conducir.

d) Requerimientos y trámites notariales.

e) Trámites necesarios en organismos oficiales.

f) La asistencia a las reuniones de los órganos de gobierno y comisiones dependientes de los mismos de que formen parte en su calidad de cargo electo como concejal o concejal, diputado o diputada, juntera o juntero o parlamentario o parlamentaria.

Artículo 36.– Licencia por traslado o mudanza del domicilio habitual.

Con motivo de efectuarse el traslado o mudanza del domicilio habitual, el personal tendrá derecho a una licencia de 2 días laborables y consecutivos de duración, justificándolo con certificado de empadronamiento expedido por el correspondiente Ayuntamiento.

El disfrute de uno de los dos días laborables de esta licencia deberá coincidir con la fecha de cambio de domicilio que conste en el certificado de empadronamiento.

No cabrá disfrutar de una nueva licencia por traslado hasta tanto haya transcurrido un período de un año desde el disfrute de la última.

Artículo 37.– Licencia por ejercicio de funciones de representación sindical o del personal.

El personal que ejerza funciones de representación sindical o del personal, tendrá derecho a disfrutar de la correspondiente licencia, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente y estipulaciones contenidas en el presente convenio.

Artículo 38.– Permiso para cuidado de menores, personas discapacitadas, parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o enfermedad propia.

El personal que, por razones de guarda legal, tenga a su cuidado directo algún o alguna menor de doce años o persona discapacitada física, psíquica o sensorial que no desempeñe actividad retribuida, o familiar hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad -aún de grado más lejano si mediara convivencia- que padezca enfermedad grave continuada y conviva con el mismo o enfermedad propia en términos ajenos a lo establecido para la correspondiente licencia, podrá solicitar un permiso consistente en una reducción de la jornada ordinaria de trabajo, con la disminución proporcional del salario entre, al menos, un octavo y un máximo de la mitad de la duración de aquélla.

La comunicación del disfrute de la presente licencia se realizará por escrito dirigido al Consorcio Haurreskolak con una antelación mínima de 15 días y deberá expresar el motivo de la solicitud de licencia, especificar el inicio y la duración del mismo, así como la concreción horaria que podrá ser objeto de negociación entre el Consorcio y el personal interesado. En cualquier caso, el personal deberá preavisar al Consorcio con 15 días de antelación la fecha en la que se incorporará a su

den egoeran aldaketaren bat gertatuz gero, langileak Haurreskolak Partzuergoari jakinarazi beharko dio.

39. artikulua.– Gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazoak dituzten senideei laguntzeko baimena.

Langileak mugitzeko arazoak dituen edo gaitz larri jarraituren bat –txosten medikuaren bidez behar bezala egiaztatutakoa– duen odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bat edota, elkarrekin biziz gero, maila urrunagoko senideren bat zaindu behar badu, langileak ordaindutako hirurogei ordu arteko baimena izango du ikasturte bakoitzeko. Oro har, ordu kreditu hori erabiltzeko, egunean har daitekeen denbora bi ordu izango dira gehenez, eta ordu horiek lanera sartzearekin edo lanetik irtearekin batera erabili beharko dira.

40. artikulua.– Azterketak egitera joateko baimena.

Ikasketa arautuak egiten ari diren langileek zentro ofizialeko edo homologatuetako azterketetara joateko baimen eskubidea izango dute. Egutegiko egun bat emango zaie azterketa bakoitzeko –bai deialdi arruntetan, bai ohiz kanpoko deialdietan–, baina egiaztatzea aurkeztu behar dute.

Azterketa lekua azterketa egiten duenaren ohiko egoitzaatik 150 km baino urrunago baldin badago, baimen hori bi egutegi eguneraino luza daiteke. Baimen hau ordaindua da.

41. artikulua.– Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena.

1.– Langileek eskubidea dute lanaldiaren barruan zentru ofizial publikoetan kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoak egitera joateko, arazoak behar bezala egiaztatzen badituzte eta osasun zentro horietan bestelako kontsulta ordurik ez badute lanorduetatik at joan ahal izateko.

2.– Bestalde, lehen mailako senideei, senar-emazte edo adin txikiko seme alabekin mediku kontsultetara joateko baimena onartzen da.

Baimen honetan erabilitako denbora hezitzaileak hurrenagoko bi hilabetetan errekuperatu behar du. Baimen honen erabilpenaren kontrola haurreskola bakoitzeko koordinatzaileak hilero eraman behar du eta Haurreskolak Partzuergoari helarazi behar dizkio hezitzaile bakoitzak hartu dituen orduak eta nola errekuperatu dituen.

3.– Haurdunaldian dagoen emakumeak erditzea prestatzeko teknikak ikastera eta jaio aurreko azterketak egitera joateko behar beste denborarako baimena izango du, eta ordaindu egingo zaio. Horretarako, egiaztatu egin beharko da jarduerak lanaldiaren barruan egin behar direla eta benetan bertara joan dela.

Baimen hauek ez dira ordezkatu.

jornada ordinaria de trabajo. Si se produjera cualquier cambio con respecto a los motivos que dieron origen a esta licencia, el o la trabajadora lo deberá poner en conocimiento del Consorcio Haurreskolak.

Artículo 39.– Permiso para atender a familiares con enfermedad crónica o problemas de movilidad.

El personal que tenga que atender o cuidar a un o una familiar hasta 2.º grado de consanguinidad o afinidad, o aún de grado más lejano si mediara convivencia, por tener dificultades de movilidad o padecer una enfermedad grave continuada, acreditada por informe médico, dispondrá de un permiso retribuido de hasta sesenta horas por curso escolar. Con carácter general, el tiempo máximo de uso diario de este crédito horario será de dos horas y su disfrute habrá de realizarse siempre coincidiendo con alguna de las entradas o salidas al trabajo.

Artículo 40.– Permiso para la concurrencia a exámenes.

El personal tendrá derecho al permiso necesario para concurrir a exámenes académicos, en centros oficiales u homologados (estudios reglados) a razón de un día natural por cada prueba de examen a efectuar, tanto en convocatorias ordinarias como extraordinarias, y presentando siempre el correspondiente justificante.

Dicho permiso se ampliará a dos días naturales si el examen se realiza a más de 150 km del lugar de residencia del examinando. Este permiso será retribuido.

Artículo 41.– Permiso para acudir a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico.

1.– El personal tiene derecho a permiso para acudir por necesidades propias a consultas, tratamientos y exploraciones de tipo médico en los centros oficiales públicos durante la jornada de trabajo, cuando las asistencias estén debidamente justificadas y los centros donde se efectúen no tengan establecidas horas de consulta que permitan acudir a ellos fuera de horas de trabajo.

2.– Asimismo será de aplicación la licencia por asistencia al médico al acompañamiento de familiares hasta el 1er grado, cónyuge e hijos menores de edad.

El tiempo empleado se habrá de recuperar en el plazo de dos meses. El control de esta licencia se llevará mensualmente por la o el coordinador de cada haurreskola que pondrá en conocimiento del Consorcio las horas utilizadas por cada educador o educadora y el modo en el que se han recuperado.

3.– Para la realización de exámenes prenatales y cursos de técnicas de preparación al parto, las trabajadoras embarazadas tendrán derecho a un permiso retribuido por el tiempo que resulte necesario para ello. A tal efecto, deberá justificarse la necesidad de su realización dentro de la jornada de trabajo, acreditándose debidamente la asistencia.

Estas licencias no serán sustituidas.

42. artikulua.– Zientzia, teknika, lanbide, elkargo, elkarte eta sindikatu izaerako gertakizun kolektiboetara joateko baimena.

1.– Biltzar, ikastaldi, ikastaro, mintegi, sinposio, topaketa, lehiaketa, solasaldi, hitzaldi, bilera, jardunaldi eta zientzia, teknika, lanbide, elkargo, elkarte eta sindikatu izaerako bestelako ekitaldi kolektiboetara joateko ez ordaindutako baimena eman ahal izango zaie langileei, zerbitzuaren beharizanak kontuan izanik eta Partzuegoko Zuzendaritza Batzordeak baimendu ondoren.

2.– Langileak bere kabuz eskatutako baimena denean, bost egunera arte ordainduko da. Muga horretatik gorako soberakina, berriz, ez da ordainduko, eta ez da inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango, ez dietarik, ez bidaia gasturik, ez egonaldi edo inskripzio gasturik, ez beste ezer, den-denak interesdunaren kontura izango baitira.

43. artikulua.– Kargu hautetsiari dagozkion zereginak egiteko baimena.

Instituzioetako kargu hautetsiak diren langileek baimena izango dute kargu horiei dagozkien eta 36.2.f) artikuluko kasuetan sartuta ez dauden eginkizunak betetzeko, behar adina denboran eduki ere, baldin eta orduen kopuru osoak urteko lanaldiaren % 10 gainditzen ez badu.

Egoera horretan dauden langileek lanaldi arrunteko orduak murrizteko baimena har dezakete. Murrizketa hori lanegunaren bostenekoa, herenekoa edo erdikoa izango da, eta lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du bere baitan.

44. artikulua.– Norberaren eginkizunetarako baimena.

1.– Norberaren eginkizunetarako baimena ezin izango da eskatu zerbitzu aktiboan hasi edo horretara itzuli eta urtebete igaro arte. Hala ere, Partzuegoko Zuzendaritzak salbuespenak ezar ditzake eta baimena eman zerbitzu aktiboan urtebete baino gutxiago egin duen langileari.

2.– Gutxienez zazpi egutegi egun iraungo du baimean, eta betiere egunak elkarren segidakoak izango dira. Eskatera 15 egun lehenago egin behar da, ezinbesteko egoerak salbu.

Salbuespeneko kasuetan (familia eta lana uztartzeko beharrak direla eta, edo lehen mailako odol senideen gaixotasun larrien kasuetan) iraupena gutxienez hiru lanegunekoa (segidakoak) izan daiteke.

3.– Norberaren eginkizunetarako baimen aldietan ez da ezer ordainduko; gainera, baimen aldia oporrei kenduko zaie hein berean. Iraupena, guztira, ezin izango da hiru hilabetekoa baino luzeagoa izan bi urtetik behin.

Artículo 42.– Permiso para asistencia a eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical.

1.– Podrá concederse permiso no retribuido al personal para la asistencia a congresos, cursos, cursillos, seminarios, symposiums, encuentros, certámenes, coloquios, conferencias, reuniones, jornadas y demás eventos colectivos de carácter científico, técnico, profesional, colegial, asociativo o sindical, siempre salvándose las necesidades de servicio y previa autorización del Comité Directivo del Consorcio.

2.– El permiso, solicitado por iniciativa del o de la trabajadora tendrá carácter retribuido hasta un límite de cinco días, siendo no retribuido el exceso sobre este límite, y no causará derecho al abono de indemnización alguna, por ningún concepto, ni tan siquiera dietas, gastos de viaje, estancia o inscripción, que correrán a cargo de la persona interesada.

Artículo 43.– Permiso para atender a funciones derivadas de cargo electivo.

El personal que ostente la condición de cargos electivos institucionales dispondrán de un permiso para el desempeño de aquellas funciones derivadas de dicha condición, y que no se encuentren incluidas en los supuestos del artículo 36.2.f), por el tiempo necesario para ello, y siempre que el montante total del mismo no supere el 10% de la jornada anual.

El personal que ostente dicha condición podrá también, alternativamente, disfrutar de un permiso consistente en una reducción de la jornada ordinaria de trabajo, en un quinto, en un tercio o en la mitad de su duración, con la consiguiente reducción proporcional de sus retribuciones en todos sus conceptos.

Artículo 44.– Permiso por asuntos propios.

1.– El permiso por asuntos propios, sólo podrá solicitarse después de haber transcurrido un año del ingreso o reingreso en el servicio activo. La dirección del Consorcio podrá establecer excepciones al límite mínimo de un año exigido.

2.– La duración mínima será de siete días naturales consecutivos y deberá solicitarse con una antelación, al menos, de 15 días a la fecha de inicio, salvo motivo de fuerza mayor.

En casos excepcionales (conciliación de la vida laboral y familiar y enfermedades graves de parientes hasta primer grado de consanguinidad) podrá reducirse el período mínimo hasta tres días consecutivos.

3.– Los permisos concedidos por asuntos propios no darán lugar a retribución alguna, siendo excluido el período de su disfrute del cómputo para el cálculo de vacaciones y su duración acumulada no podrá exceder de tres meses cada dos años.

Bi urteak baimen aldia hartzen den lehenengo egunetik hasiko dira zenbatzen; hori horrela, ondoz ondo hiru hilabeteako aldirako ematen bada, ezin izango da beste bat eman bi urte igaro arte, lehenengoaren hasiera egunetik hasita. Aldi laburragoetan, halaber, hasiera egunetik hasiko da zenbatzen, baina bi urteko epearen barruan norberaren eginkizunetarako beste baimen batzuk eman ahal izango dira, hiru hilabeteak osatu arte.

Baimena ikasketa ofizialak egiteko eskatzen denean, urtean ondoz ondoko lau hilabete eman ahalko dira gehienez.

Hala zehazten den kasuetan, ikasketa ofizialak egiteak lanaldia murrizteko eskubidea ekar dezake; murrizketa hori lanaldiaren heren batekoa edo lanaldiaren erdia izango da, eta lansariaren atal guztien heineko beherapena ekarriko du bere baitan. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan eginkizunen bat egiteko eskatzen bada baimena, eta beti ere gobernu kanpoko erakundeetan babespean bada, baimenaren iraupena, metatuta hartuta, ezin izango da urtebetetik gorakoa izan bost urtetik behin, eta gutxieneko aldia hiru hilabeteak izango da.

4.- Administrazio eta erakunde publikoetako kidegoetara eta eskaletara sartzeko deialdietan baimena emango da ezarritako hautatze probetako ariketak egiteko. Baimen hori probetan parte hartzeko behar adina denborarako emango da.

5.- Halaber, baimena emango da zigor askatasun gabetzaileen bat betetzen ari den odol ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideren bati bisita egiteko, behar beste denborarako eman ere, baldin eta bisitak lanorduetatik kanpo egiterik ez badago.

6.- Baimen hori, dena delako modukoa izanik ere, laneko beharren arabera emango da. Ebazpena ezezkoa bada, horren arrazoiak eman beharko dira.

7.- Baimen hori hartzeko eskubidea daukan aldi baterako langileak gutxienez urtebeteko zerbitzaldi pilatua izan beharko du Partzuergoan, eta indarrean dagoen ikasturtean gutxienez 6 hilabete izan beharko ditu pilatuta. Alde horretatik, ikasturte baterako egiten den kontratua izanez gero, bigarren baldintza betetzen dela ulertuko da.

45. artikulua.– Aplikazioa.

Izatezko bikoteak senar-emaztetzat hartuko dira Kapitulu honetan aipatutako lizentziak eskuratzeari dagokionez. Egoera egiaztatzeko ezinbestekoa da izatezko bikoteen erregistro publikoan inskribaturik daudela adierazten duen ziurtagiria aurkeztea. Horrez gain, Hitzarmenaren artikuluetan eskatzen diren dokumentuak ere aurkeztu beharko dira.

El cómputo de los dos años comenzará el día en que se inicie el disfrute del permiso, de modo que si éste se concede por un período de tres meses continuados no podrá otorgarse otro de la misma naturaleza hasta transcurridos dos años desde tal fecha. Para solicitudes por un período inferior, el cómputo comenzará igualmente el día en que se inicie el disfrute, y en el plazo de dos años desde tal fecha podrán concederse permisos por asuntos propios por el período que reste hasta completar tres meses.

En los casos en que el permiso se solicite para la realización de estudios oficiales, se podrán conceder hasta cuatro meses continuados por una sola vez y con una periodicidad anual.

En los supuestos en que se determine, la realización de estudios oficiales podrá conllevar el derecho a una reducción de jornada de 1/3 o 1/2 de su duración con reducción proporcional de retribuciones. En el supuesto de que el permiso se solicite para la realización de una misión en países en vías de desarrollo, al amparo de Organizaciones no gubernamentales de desarrollo, su duración acumulada no podrá exceder de un año cada cinco años, siendo el periodo mínimo de disfrute tres meses.

4.- Se concederá permiso para la realización de ejercicios correspondientes a pruebas selectivas previstas en convocatorias de ingreso en Cuerpos y Escalas de las Administraciones y Organismos Públicos. Este permiso se concederá por el tiempo necesario para hacer posibles la asistencia a las pruebas.

5.- Asimismo se concederá permiso para visitar a parientes hasta 2.º grado de consanguinidad, que estuvieran cumpliendo penas privativas de libertad, por el tiempo que resulte necesario para ello, siempre y cuando las visitas no puedan efectuarse fuera del horario de trabajo.

6.- La concesión de este permiso, en sus diferentes modalidades, estará subordinada a las necesidades del servicio. En caso de resolución denegatoria, esta deberá ser motivada.

7.- El personal eventual que tenga derecho a la concesión de este permiso deberá haber prestado servicios en el Consorcio por un período acumulado no inferior a un año, acumulando un mínimo de 6 meses en el transcurso del vigente curso escolar. En este sentido, en el caso de contarse con un contrato por curso escolar, se entenderá que se cumple con este segundo requisito.

Artículo 45.– Aplicación.

Las parejas de hecho tendrán la misma consideración que el matrimonio en relación con el disfrute de las licencias enunciadas en este Capítulo. Será necesario justificar la situación de pareja de hecho mediante certificado de inscripción en registro público de parejas de hecho. Este requisito se exigirá sin perjuicio de la documentación exigida para la acreditación de estas situaciones en los artículos del presente convenio.

Bularra emateko etenaldia, eta adingabekoak, elbarri fisikoak, psikikoak edo sentsorialak, edota bigarren mailara arteko odol ahaidetasuneko senideak zaintzeko lanorduen murrizketa bateragarriak direnean izan ezik, ezin izango da inoiz ere aurreko artikuluan adierazitako lizentzia edo baimen bat baino gehiagoz baliatu aldiko. Oporraldiak dirauen artean, ezin izango da ordainduta-ko lizentziaz edo baimenez baliatu.

46. artikulua.– Lanpostura itzultzea.

Lizentzia eta baimena hartzeko denbora bukatu ondoren, langileek berehala itzuli beharko dute dagokien lanpostura.

II. KAPITULUA
ESZEDENTZIAK

47. artikulua.– Eszedentziak.

Eszedentzia borondatezkoa edo nahitaezkoa izan daiteke, edota seme-alaba nahiz ahaideak zaintzeko.

1.– Nahitaezko eszedentziak lanpostua gordetzeko eta antzintasuna zenbatzeko eskubidea emango du. Honako kasu hauetan emango da, Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari idatziz eskatu ondoren:

a) Kargu publikoren bat betetzeko izendatua edo hautatua izateagatik, langileak lanera joatea ezinezkoa badu.

b) Langileak probintziako edota lurralde esparru handiagoko eginkizun sindikalak bete behar baditu, ordezkartza karguak irauten duen bitartean.

c) Langileak askatasuna galdu duenean –prebentziozko atxilotzea eta behin-behineko espetxeratzea barne hartuta–, zigortzeko epai irmorik jasotzen ez duen bitartean.

Eszedentzia nahitaez hartzen duen langileak lanera itzultzea eskatu beharko du, zegokion zerbitzu, kargu edo zeregina utzi eta hogeita hamar egutegi egun igaro baino lehen.

Eszedentzia egoera bukatu eta ezarritako epe barruan lanera itzultzeko eskaera egiten ez badu, behin betiko baja emango zaio langileari.

2.– Haurreskolak Partzuergoan urtebeteko antzintasuna bete duten langileek borondatezko eszedentzia eska dezakete, idatziz. Gutxienez lau hilabetekoa eta gehienez bost urtekoa izango den eszedentzia har dezakete, baldin eta lau urte igaro badira azkeneko eszedentzia amaitu zitzaientetik.

3.– Bestelako mugarik gabe, langileek eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute, hiru urtetik beherako eperako, seme-alaba bakoitza zaintzeko. Eszedentzia hori haur naturalak, adopziozkoak, adopzio aurretik hartuak edota harrera iraunkorrean hartuak diren haurrak zaintzeko izango da, eta harrera behin-behinekoa

Salvo en el supuesto de compatibilidad entre la pausa para lactancia y la reducción de la jornada para el cuidado de menores o minusválidos físicos, psíquicos o sensoriales o pariente hasta segundo grado de consanguinidad, en ningún otro caso podrá simultanearse el disfrute de más de una de las modalidades de licencias y permisos previstos en el artículo anterior. Durante el período de disfrute de las vacaciones reglamentarias no se podrá hacer uso de las licencias o permisos retribuidos.

Artículo 46.– Reincorporación al puesto de trabajo.

Transcurrido el período de disfrute de las licencias y permisos correspondientes el personal deberá reintegrarse inmediatamente a su respectivo puesto de trabajo.

CAPÍTULO II
EXCEDENCIAS

Artículo 47.– Excedencias.

La excedencia podrá ser forzosa o voluntaria o para el cuidado de los y las hijas o familiares.

1.– La forzosa que dará derecho a la conservación del puesto de trabajo y al cómputo de la antigüedad de su vigencia, se concederá previa solicitud escrita al Comité Directivo del Consorcio, en los siguientes supuestos:

a) Por designación o elección para un cargo público que imposibilite la asistencia al trabajo.

b) Por el ejercicio de funciones sindicales de ámbito provincial o superior, mientras dure el ejercicio de su cargo representativo.

c) Por privación de libertad del o de la trabajadora, mientras no exista sentencia condenatoria firme, incluidas tanto la detención preventiva, como la prisión provisional.

El personal con excedencia forzosa, deberá solicitar la reincorporación en el plazo máximo de treinta días naturales a partir del cese en el servicio, cargo o función que motivó su excedencia.

Si al cesar en tal situación, no solicitara su reincorporación a su puesto de trabajo en los plazos establecidos, causarán baja definitivamente.

2.– El personal con al menos un año de antigüedad en el Consorcio Haurreskolak podrá solicitar por escrito una excedencia voluntaria, y se concederá por un plazo no menor de 4 meses y no mayor de 5 años y siempre y cuando el o la trabajadora no la haya disfrutado en los cuatro años desde el final de la anterior excedencia.

3.– Sin otras limitaciones, el personal tendrá derecho a un período de excedencia no superior a tres años, para atender al cuidado de cada hija o hijo -tanto cuando sea por naturaleza como por adopción como por acogimiento preadoptivo o permanente-, aunque estos sean provisionales, a contar desde la fecha de nacimien-

den kasuetan ere har daiteke. Epea, betiere, haurren jaiotegunetik edo ebazpen judicial edo administratiboaren datatik aurrera kontatuko da. Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzinatasunaren ondorioetarako. Hurrengo seme edo alaba bakoitzak beste eszedentzia baterako eskubidea emango du; hala gertatuz gero, une horretan burutzen ari zen eszedentzia bertan bukatuko da.

4.– Langileek gehienez bi urteko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute odol ahaidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senideak zaintzeko, senideren bat, adinagatik, istripuren bat izateagatik edo gaitzak jota egoteagatik, ezin bada bere kabuz moldatu eta ordaindutako jarduerarik egiten ez badu. Denboraldi horretan, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta epe hori ere kontuan hartuko zaio antzinatasunaren ondorioetarako. Era berean, prestakuntza ikastaroetan parte hartzeko eskubidea izango du. Bestalde, beste subjektu batek beste eszedentzia bat hartzeko eskubidea sortzen badu, eszedentziako denboraldi hori hasten denean langileak lehendik zeukan eszedentzia bukatuko da.

5.– Borondatezko eszedentzia hartu duen langileak berriz lanera itzultzea eskatzen duenean, bere kategorian hutsik geratzen den lehen lanpostua betetzeko eskubidea izango du, edo, bestela, hutsen bat gelditu arte itxaron beharko du.

48. artikulua.– Genero indarkeriaren biktima den langilearen lanaldi murrizketa, jardunaldiaren egokitzapena eta lantokiaren aldaketa.

1.– Genero indarkeriaren biktima den langileak bere babesa eraginkorra izan dadin eskubidea izango du gutxienez zortziren bateko eta gehienez lanaldi erdiko murrizketarako bere soldataren murrizketa proportzionalarekin edo Haurreskolen Partzuergoarekin, Haurreskolako koordinatzailearekin eta pertsona interesdunarekin adostuko den ordutegiaren aldaketaren bidez egingo den lanaldiaren egokitzapenerako.

2.– Bere lana burutzen zuen tokiko lanpostua uztera behartuta dagoen genero indarkeriaren biktima den langileak, bere babesa eraginkorra izan dadin, lehentasunezko eskubidea izango du enpresak beste lantoki batean hutsik duen talde edo kategoría profesional bereko lan postu bat betetzeko.

Kasu hauetan Haurreskolak Partzuergoa behartuta egongo da une horretan edo etorkizunean hutsik egon daitezkeen lanpostuak zeintzuk diren esatera.

Lantokiaren aldaketak ikas urtea bukatzeko gelditzen den denboraren iraupena izango du hasiera batean. Epe horretan enpresak, aurretik langileak betetzen zuen lanpostua erreserbatzeko obligazioa izango du.

to o de la resolución judicial o administrativa. Durante este tiempo el personal tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo y a que el citado periodo sea computado a efectos de antigüedad. Los sucesivos hijos e hijas darán derecho a un nuevo período de excedencia que, en su caso, pondrá fin al que se venía disfrutando.

4.– El personal tendrá derecho a un período de excedencia no superior a dos años, para atender al cuidado de un familiar, hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad, que por razones de edad, accidente o enfermedad no pueda valer por sí mismo, y no desempeñe actividad retribuida. Durante este tiempo la o el trabajador tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo y a que el citado periodo sea computado a efectos de antigüedad. También se tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación. Cuando un nuevo sujeto causante diera derecho a un nuevo período de excedencia, el inicio de la misma dará fin a la que se viniera disfrutando.

5.– La persona excedente voluntario que solicite su reincorporación, tendrá derecho a ocupar la primera vacante que se produzca en su categoría y si no existiera deberá esperar a que se produzca aquélla.

Artículo 48.– Reducción de jornada, adaptación de la jornada y cambio de centro de trabajo de la persona víctima de violencia de género.

1.– La trabajadora víctima de violencia de género tendrá derecho, para hacer efectiva su protección, a la reducción de su jornada de trabajo con disminución proporcional del salario de, al menos un octavo de su jornada y un máximo de la mitad de su jornada, o a la reordenación del tiempo de trabajo, a través de la adaptación del horario que será acordado entre el Consorcio Haurreskolak, la coordinadora de la haurreskola y la persona interesada.

2.– La trabajadora víctima de violencia de género que se vea obligada a abandonar el puesto de trabajo en la localidad donde venía prestando sus servicios, para hacer efectiva su protección, tendrá derecho preferente a ocupar otro puesto de trabajo, del mismo grupo profesional o categoría equivalente, que la empresa tenga vacante en cualquier otro de sus centros de trabajo.

En tales supuestos, el Consorcio Haurreskolak estará obligado a comunicar a la trabajadora las vacantes existentes en dicho momento o las que se pudieran producir en el futuro.

El traslado o el cambio de centro de trabajo tendrá una duración inicial del tiempo que reste del curso escolar, durante los cuales la empresa tendrá la obligación de reservar el puesto de trabajo que anteriormente ocupaba la trabajadora.

Epe hori bukatzean, langileak aurretik betetzen zuten lanpostura itzultzea edo berrian gelditzea erabaki dezake. Azken kasu honetan, erreserbarako obligazioa bertan behera geldituko da.

49. artikulua.– Askatasuna galdu izanagatik lan harremana etenda uztea.

Askatasuna galdu izanagatik lan harremana etenda duen langileak bere lanpostua gordeta edukitzeko eskubidea izango du epai kondenatzaile irmoa jasotzen ez duen bitartean. Egoera horretan dagoen bitartean, indarrean dagoen legeriaren arabera dagozkion ordain-sariak jasoko ditu.

50. artikulua.– EAEko Administrazioako Mahai Orokorraren hitzarmenetan jasotako hobekuntzen aplikazioa.

Lizentziei, baimenei eta eszedentziei dagokienez, EAEko Administrazioako Negoziazio Mahai Orokorraren hitzarmenetan inolako hobekuntzarik egingo balitz titulu honetan adierazitako baldintzekiko, hobekuntza hori Partzuergoan zuzenean aplikatuko litzateke.

SEIGARREN TITULUA

BESTE GIZARTE ONURA BATZUK

51. artikulua.– Bizi, istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak.

1.– Partzuergoak istripuko aseguruaren polizen estaldurak bermatuko ditu, honako kapital hauen arabera:

Heriotza:	30.000 euro.
Erabateko baliaezintasun iraunkorra:	30.000 euro.
Guztizko baliaezintasun iraunkorra:	30.000 euro.
Partezko baliaezintasun iraunkorra:	30.000 euro-raino, baremo baten arabera.

<i>Muerte:</i>	<i>30.000 euros.</i>
<i>Invalidez Permanente Absoluta:</i>	<i>30.000 euros.</i>
<i>Invalidez Permanente Total:</i>	<i>30.000 euros.</i>
<i>Invalidez Permanente Parcial:</i>	<i>hasta 30.000 euros según baremo.</i>

2.– Partzuergoak indarrean dagoen bizi eta erabateko baliaezintasun iraunkorreko polizaren estaldura bermatuko du, 30.000 euro-raino.

3.– Hitzarmen honen eremuan sartzen diren langileek erantzukizun zibileko polizaren estaldura dute. Partzuergoak egin du poliza hori, Partzuergoaren berraren, horren ordezkarien, langileen eta mendekoen alde, bere egitekoak betetzen edo bere lanbide jardunetarako.

Terminado este período, la trabajadora podrá optar entre el regreso a su puesto de trabajo anterior o la continuidad en el nuevo. En este último caso, decaerá la mencionada obligación de reserva.

Artículo 49.– Situación de suspensión de la relación de servicio por motivo de privación de libertad.

El personal cuya relación de servicio se encuentre suspendida por motivo de privación de libertad, tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo en tanto no recaiga sentencia condenatoria firme, percibiendo las retribuciones a las que tuviera derecho, en aplicación de la legislación vigente.

Artículo 50.– Aplicación de mejoras recogidas en los Acuerdos de la Mesa General de la Administración de la CAPV.

Cualquier mejora que se recoja respecto de las licencias, permisos y excedencias recogidos en el presente título en los Acuerdos de la Mesa General de Negociación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi será de aplicación directa en el Consorcio.

TÍTULO SEXTO

OTROS BENEFICIOS SOCIALES

Artículo 51.– Seguros de vida, accidente y responsabilidad civil.

1.– El Consorcio garantizará las coberturas de la póliza de accidentes conforme a los siguientes capitales:

2.– El Consorcio garantizará la póliza de seguro de vida y de Invalidez Permanente Absoluta en vigor hasta una cobertura de 30.000 euros.

3.– El personal incluido en el ámbito del presente convenio se encuentra cubierto por la póliza de responsabilidad civil suscrita por el Consorcio a favor del Consorcio, sus representantes, trabajadores/as y dependientes en el ejercicio de sus funciones, cuya cobertura

Poliza horren estaldurak 3.000.000 euro-ko muga du ezbeharreko, eta 1.200.000 euro-ko azpi-muga kalte-duneko.

52. artikulua.– 60 urtetik gorakoei zuzeneko arretako denbora murriztea.

60 urtetik gorako hezitzaileek haurrei zuzeneko arreta emateko denbora murriz dezakete, egunean bi orduz. Denbora hori prestakuntza lanetarako eta zentroaren antolaketa orokorreko lanetarako erabiliko da.

ZAZPIGARREN TITULUA

JARDUERA SINDIKALA

53. artikulua.– Jarduera sindikala.

Hitzarmen honen eremuan sartzen diren langileen jarduera sindikalari dagokionez, honako hauetan ezarritakoak hartuko dira kontuan: egungo lege araudian ezarritakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako eskubide sindikalei eta jardun sindikalak bete zezari buruzko Esparru Akordioa delakoan ezarritakoa.

Batzorde Parekideak Partzuergoaren kudeaketarako eta ematen dituen zerbitzuen behar bezalako funtzionamendurako metodoak eta formulak aztertuko ditu, horiek eta artikulua honetan aitortutako eskubide sindikalak aplikatzea eta erabiltzea bateragarri egiteko.

ZORTZIGARREN TITULUA

SEGURTASUNA ETA LAN OSASUNA

54 artikulua.– Segurtasuna eta lan osasuna.

1.– Haurreskolak Partzuergoaren eta langileen ordezkariaren artean egingo dute segurtasunerako eta lan osasunerako plangintza. Horretarako, segurtasuna eta lan osasuna erregulatzen dituen araudian aurreikusitako organoak eratuko dira.

Aldeek adosten dute organo berri baten eraketa ahalbidetzea. Organo berri horrek koordinazio funtzioak izango ditu, hain zuzen ere, segurtasunaren eta lan osasunaren arloan kompetentziak dituzten organoen koordinazioa.

